

BLOG SARRERA EBALUATZEKO ERRUBRICA (#demokrazy proiektua)

	OSO EGOKIA	EGOKIA	GINARRIZKOA	DESEGOKIA
Mezuaren Izenburua	Izenburuak oso ongi deskribatzen du mezuaren edukia	Izenburua mezuari lotua dago	Izenburuak ez du deskribatzen mezuaren edukia	Mezuak ez dauka izenbururik
Mezuaren Edukia	Ideia nagusia argi eta garbi identifikatzen da. Sarrerak hausnarketa sakon bat adierazten du. Ideia guztiak elkarrekin lotuta daude, sarrera, argudiaketa eta konklusioa eskema jarraituz. Ikasleen iritzi pertsonala estilo egokian adierazten da eta gaiarekin erlazionatua dago. Sarrerak eta iritziak ulermen-maila altua nabarmentzen dute.	Ideia nagusia identifikatzen da. Sarrerak gogoetaren sakontasuna erakusten du. Ideia gehienak elkarrekin lotuta daude, sarrera, argudiaketa eta konklusioa eskema jarraituz. Sarreraren edukia gaiarekin lotuta dago. Ikasleen iritzi pertsonala estilo egokian adierazten da eta ulermen maila ona nabarmentzen da	Ideia nagusiarekiko erlazio argirik gabeko kontzeptuak identifikatzen dira soilik. Proposatutako galderei erantzuten du, narrazio batean egituratu gabe, eskolako ariketa baten antza hartuz. Sarrerak ulermen-graduren bat adierazten du. Sarrera motza da.	Ideia nagusia ez dago batere argi, gogoeta falta da, edo sakontasunik gabekoa eta azalekoa da. Sarrera motza da. Ez du iritzia adierazten eta ulermen gutxi erakusten du.
Mezuen antolaketa	Mezuak gai bati eutsi egiten dio, irudiak edo bideoak sarreran txetatuz, eta hausnarketarekin duten lotura azalduz	Mezua nagusian gaia azaltzen du, eta gai berdinarekin lotuak dauden beste sarrera batzuetara estekatzen du	Mezu bat baino gehiagok gai berbera azaltzeko daude, baina elkarri lotu gabe, eta motzak dira	Mezu asko eta motzak, lotu gabeak gai berbera azaltzen dute
Blogaren Aurkezpena	Blogak aurkezpen oso erakargarria eta erabilgarria du. Elementu garrantzitsu guztiak erraz aurkitu daitezke. Blogaren atal ezberdinen neurria oso egokia da. Irudiak, bideoak eta espazio zuria eraginkortasunez erabiltzen dira	Blogak aurkezpen erakargarria eta erabilgarria da. Elementu garrantzitsu guztiak erraz aurkitu daitezke. Irudiak edo bideoak agertzen dira.	Blogak aurkezpen erabilgarria du. Elementu gehienak erraz aurkitu daitezke. Mezuak aspergarriak izan daitezke, irudirik edo bideorik gabekoak.	Blogaren aurkezpena ez da erabilgarria, eta batzuetan zaila da elementu garrantzitsuak aurkitzea
Blogaren Antolaketa	Goiburua originala da eta blogaren atal ezberdinen neurria oso egokia da. Tipografia eta koloreak elementuak bereizteko lagungarriak dira. Letra eta koloreak irakurketarako egokiak dira	Blogaren atal ezberdinen neurria egokia da, nahiz eta piska bat estua izan. Letra eta koloreak irakurketarako egokiak dira	Blogaren atalak ez dira oso proportzionalak, eta zenbait elementuk ez dute ia lekurik, irakurtzea zailagoa izanik	Tipografia eta koloreen arteko erlazioa oso zaila egiten du irakurketa. Blogaren zenbait atal oso estuak dira.
Bideoak	Bideoa sarreran txertatua dago, oso bideo ona da, tamaina egokia du eta gaiarekin duen erlazioa zehazki azaldua	Bideoa sarreran txertatua dago, baina tamaina txikia du. Gaiarekin duen lotura azaltzen du	Bideoa esteka baten bidez agertzen da, baina ez dago orrian txertatua	Ez dago bideorik
Irudiak	Irudiak mezuaren gaiarekin erlazioa dute, tamaina egokia dute, kalitate handia eta mezua ikusgarriagoa eta ulergarriagoa eginez eta irakurlearen interesa handituz	Irudiak mezuaren gaiarekin erlazioa dute, kalitate ona dute eta mezua ulergarriagoa egiteko balio dute	Irudiak mezuaren gaiarekin erlazioa dute, kalitate ona dute	Ez dago irudirik, edo egotekotan ez daukate gaiarekin erlaziorik
Ortografia eta joskera	Ez dago ortografia edo joskera akatsik	6 akats ortografian edo joskeran	9 akats ortografian edo joskeran	12 akats baino gehiago